SORTZENEN IGANDEKO JAIA
BERTAN BEHERA

Sortzen-Ikasbatuaz Euskal Eskola Publiko Berriaren alde lanean diharduen elkartea da. Zeregin horren baitan, helburu dugun eskola aldarrikatzeko jai nazionala antolatu dugu hemezortzi urtez. Mobilizazio xume gisa jaio zen ekimen honek azken urteotan milaka eta milaka euskaltzale bildu ditu Iruñeako bihotz den Takoneran, udaberri garaian dimentsio haundia hartuz. Urtaro nahasi honetan ordea, eguraldia ez dugu beti lagun izan. Erreñik Trinitariosen eguzkitarako krema behar izan zuen bitartean Hazitxo Takonerako zaparradan ia ito zitzaigun. Iazko eurite hari aurre egiteko egin behar izan genuen esfortzuak gainera, gure elkartea kinka larrian utzi zuen.

Egoera hartan, aurtengo jaia antolatzen hasi ginen Txantreako Bernat Etxepare eskolaren laguntzaz eta hartu behar izan genuen lehenengo erabakia jaiaren formatuaren ingurukoa izan zen. Jaia egun bakar batean ospatzetik asteburu osora zabaldu genuen, alde batetik antolatzaileen espazioan eragiteko, eta bestetik eguraldi txarragatik igandean bertan behera utzi beharko genituzkeen ekimenak larunbatean leku itxi batean ziurtatzeko asmoz. Izan ere, iazko esperientziaren ostean jaia antolatzeko aurrekontua jaitsi behar izan genuen eta karpa eta estalkirik gabeko planteamendua osatu.

Lanean eman ditugun hilabete luzeen ostean, hainbat traba izan ditugu larunbatean Txantrean burutu nahi genituen kontzertuak aurrera eramateko. Udalak jarritako baldintzak oso zorrotzak izan dira. Ebakuazio plana eskatzen zuten bezala betetzeko, arkitekto baten proiektua eta diru inbertsio handia eskatzen zuen. Horri aurre egitea ezinezkoa da gurea bezalako elkarte txiki batentzat. Horregatik, eta gure nahiaren kontra, Txantxu Rock musika jaialdia bertan behera utzi behar izan dugu.

Bestetik, eguraldi aurreikuspenek ostiraletik aurrera euri zaparradak izango ditugula diote. Gure planteamendua karparik gabekoa dela kontutan hartuta, igandeko jaia bertan behera uzteko erabakia hartu dugu; euriak eguna bera kolokan jartzeaz gain, muntaketa lanak oztopatuko dizkigulako (soinu ekipoak, elektrizitatea eta abarrak ezin ditugu euripean muntatu). Aurretik esan dugun bezala, gure elkartea ekonomikoki itota dagoenez ez dugu aurrekontu eta inbertsio handiei aurre egiteko dirurik, eta beraz, ez dugu Takonera bezalako espazio zabala egun euritsu baterako egokitzeko aukerarik.

Urtebeteko lan gogorra egun batetik bestera bertan behera utzi behar izatea ez da lan erraza eta auzolan erraldoi honetan lanean ibili zareten guztion frustrazioa gainditzeko helburuz igandeko jaia ospatzeko bide ezberdinen bila ibili gara. Alde batetik, eguna bera mantenduz beste espazio bat aurkitzen saiatu gara eta bestetik, igandeko jaia astebete atzeratzeko gestioak egin ditugu. Horretan ari ginela ordea, buruak argitu eta Jai Nazionalari egozten dizkiogun helburuak zerrendatu ditugu.

1.Hasteko aldarrikapen gisa antolatzen dugu jai hau urtero. Hezkuntza Sistema Propioaren bidean eraiki behar dugun Euskal Eskola Publiko Berria aldarrikatu nahi izaten dugu Takoneran. Horregatik indartu dugu aurtengo egitaraua gurekin batera lanean ari diren hainbat eragile eta mugimenduren ekarpenekin.
2.Aurtengo edizioaren bitartez ikasturte honetan burutzen ari garen gogoeta prozesuaren ondorioak zabaldu nahi genituen.
3. Antolatzaile lanetan ari den Bernat Etxepare eskola hezkuntza komunitate aktibo gisa antolatu eta Txantrea auzora zabaltzeko xedea dugu (hori lortu dugu).
4. Eta bukatzeko, eta lanean jarraitu ahal izateko beharrezkoa dugun laguntza ekonomikoa eskuratzeko antolatu dugu ere aurtengo jaia.

Jaia atzeratzeak lagunduko al digu gure helburu horiek lortzen? Hau da; eguna astebete atzeratzeak jaia modu duin batean garatzeko aukerak eskaintzen dizkigu ala partxe azkar eta trakets bat izango da? Lehen esan dugun moduan, apustu hori egiteko baliabide ekonomiko nahikoak izango bagenitu, ziur gaude auzolanaren bitartez jai txukuna muntatzea lortuko genuela. Baina ezin dugu.

Erabaki hau hartzeko hainbat aukera eta faktore izan ditugu kontutan. Hasieran, maiatzaren 26ra atzeratu nahi izan genuen baina Ibilaldia dela-eta, gure aukera bakarra maiatzaren 25era eramatea zen. Egun horretan Barañaingo eta Alde Zaharreko egunak izango dira eta larunbatetan jende askok lana edota kirol txapelketak izaten ditu. Horrek eta gure jaia igandetan ospatzeko dugun ohiturak, jende gutxiagok parte hartuko zuela ziurtatzen digu. Bestetik, astebete atzeratzeak ez digu eguraldi ona bermatuko, eta behin data aldatu dugula, eguraldi txarra egingo balu, are frustragarriagoa izango litzateke bertan behera utzi behar izatea. Egun aldaketak ere hainbat zailtasun dakartza, bete beharko genituzkeen 300 txandetatik gora lotzea besteak beste.

Jaiarekin aurrera egitera bultzatzen gaituen faktore nagusia, urtebetez lanean egon diren txantrearren frustrazioa da. Jakin badakigu gure esku ez dagoen zerbaitek lan guztia pikutara bidaltzen duenean zer sentitzen den. Guretzat ere gogorra izan da erabakia hartu behar izatea. Hala ere, erabakia txantrearrekin batera hartu dugu eta ikuspegi berdina konpartitzen dugula jakiteak dena erraztu du.

Bihotzak aurrera egitera bultzatzen bagaitu ere, buruak ezin dugula esaten digu argi eta garbi.

Bukatzeko, maiatzaren 18an egunean zehar Txantrean burutuko ditugun ekimenetara gonbidatu nahi zaituztegu; auzolanean elkarrekin ibili garenok badugulako zer ospatu.

sortzen

FIESTA DE SORTZEN DEL DOMINGO
SUSPENDIDA

Sortzen-ikasbatuaz es una asociación que trabaja a favor de la Escuela Pública Vasca. Durante estos últimos 18 años hemos organizado una fiesta para reivindicar ese modelo de escuela pública que queremos. Esta iniciativa que comenzó siendo modesta y pequeña ha reunido en los últimos años a miles y miles de euskaltzales en el que es el corazón de Iruñea, el parque de la Taconera. La fiesta se ha celebrado en sucesivas primaveras y hay que decir que la climatología no ha estado siempre de nuestro lado. Mientras que Erreñi necesitó de protector solar Hazitxo casi se nos ahoga en la Taconera. Además los esfuerzos que tuvimos que hacer el año pasado para sacar adelante la fiesta dejaron a la asociación en una grave situación.

Con esa situación comenzamos a organizar la fiesta de este año con la ayuda de la escuela Bernat Etxepare de la Txantrea. La primera decisión que tuvimos que tomar fue sobre el formato mismo de la fiesta. Así la fiesta pasó de un día, a cubrir todo el fin de semana. Por un lado para influir y dinamizar el espacio donde se organizaba la fiesta, el barrio de la Txantrea, y por otro lado para asegurar la realización de varios actos que de hacer mal tiempo el domingo, se tendrían que suspender. Hay que tener en cuenta que con la experiencia del año pasado el presupuesto para la organización se ha visto reducido considerablemente y que se ha tenido que hacer un planteamiento sin carpas ni cubiertas.

Durante todos estos meses de trabajo en la organización hemos tenido un montón de problemas para los conciertos que queríamos realizar en la Txantrea. Las condiciones impuestas desde el Ayuntamiento para la celebración de este tipo de eventos han sido muy exigentes. Las ultimas requerían de un proyecto de adecuación de las gradas con una inversión importante y no había ni tiempo ni recursos económicos para poder realizarlo. Desde una asociación tan pequeña como la nuestra ha sido imposible hacer frente a todos estos obstáculos. Por eso y con mucho pesar hemos tenido que suspender el festival Txantxu Rock.

Por otra parte las predicciones metereológicas auguran lluvias importantes a partir del viernes. Si tenemos en cuenta nuestro planteamiento de no utilizar carpas ni cubiertas, hemos decidido que lo más sensato es suspender con antelación la fiesta del domingo; ya que la lluvia a parte de hacer inviable la celebración del día de la fiesta también va a dificultar el mismo montaje de la misma (no podemos montar los equipos de sonido, la electricidad, etc. si está lloviendo). Como hemos dicho la economía de la asociación es muy precaria y no tenemos recursos para acondicionar un espacio tan amplio como es el de la Taconera para poder celebrar la fiesta en condiciones aceptables.

No es facil tirar por tierra el trabajo realizado en auzolan durante todo el año y hemos estado buscando alternativas para poder seguir adelante con la celebración que ha implicado a tantas y tantas personas. Por un lado hemos intentado buscar otro espacio más adecuado para el mismo día, y no ha sido posible; por otro lado hemos hecho las gestiones para poder retrasar una semana la fecha de la celebración. Cuando estábamos inmersos en esas gestiones nos hemos parado y hemos intentado reflexionar sobre los objetivos que buscamos con esta fiesta reivindicativa que se organiza a nivel de toda Euskal Herria.

1.En la Taconera reivindicamos año a año la Nueva Escuela Pública Vasca que tenemos que construir camino a lograr nuestro Sistema Educativo Propio. Por eso hemos reforzado el programa de este año con las aportaciones de diferentes colectivos.

2.Por otra parte queríamos trasladar las conclusiones del proceso de reflexión que estamos llevando a cabo durante este año.

3.Tenemos como objetivo que la escuela de Bernat Etxepare se organice como sujeto activo y se extienda a toda la Txantrea (este objetivo lo hemos conseguido).

4.Por último para asegurar la subsistencia de la asociación esta fiesta debía aportarnos una ayuda económica.

¿Nos ayudará el retrasar la fecha de celebración a conseguir esos objetivos? Es decir, el retrasar una semana la celebración nos da opción a desarrollar de una manera digna esta fiesta o será un parche rápido y mediocre? Como hemos dicho antes, estamos seguros y seguras que si tuviéramos los recursos suficientes podríamos organizar mediante el auzolan una fiesta apropiada. ¡Pero no podemos!

Para tomar esta decisión hemos tenido en cuenta diversos factores. En un principio la íbamos a pasar al 26 de mayo pero en esa fecha se celebrará el Ibilaldia , así que nuestra única fecha posible era la del 25 de mayo. Ese día son los días de Barañain y Alde Zaharra y los sábados mucha gente tiene trabajo o competiciones deportivas. Esto añadido a la costumbre de celebrar la fiesta en domingo nos asegura que la participación va a ser mucho menor. Por otra parte, el retrasarla una semana no nos garantiza el tiempo que va a hacer, y una vez cambiada la fecha el tener que volver a suspenderla crearía todavía más frustración. Otra de las dificultades que conllevaría el cambio de fecha sería el llenar los más de 300 turnos que tenemos.

El factor principal que nos empuja a seguir adelante con la fiesta es la frustración de toda esa gente de la Txantrea que ha estado trabajando durante todo este año. Sabemos por experiencia, lo que se siente al tener que tirar por la borda todo el trabajo realizado por algo que no está en nuestras manos. Para todas nosotras y nosotros también ha sido muy duro el tener que tomar esta decisión. Aún así, la última decisión se ha tomado junto a esa gente de la Txantrea que ha estado trabajando y hay que decir que el ver que compartíamos la misma perspectiva ha facilitado mucho las cosas.

Aunque el corazón nos empuja a seguir adelante con todo, la cabeza nos dice muy claramente que no debemos ni podemos.

Para terminar os queremos invitar a participar en los deiferentes actos que celebraremos el día 18 de mayo en la Txantrea, porque la gente que hemos estado trabajando en este auzolan gigante sí que tenemos mucho que celebrar.

sortzen